

- **ZEIN DIRA ZUEN PROIEKTUAREN KOSTURIK GARRANTZITSUENAK?**

Lehenik eta behin gasturik garrantzitsuena pertsonala da saskibaloian zein futboleko adituak diren entrenatzaileak eta desgaitasun fisiko zein mentalean espezializatutako hezitzaileak behar ditugulako arreta pertsonalizatua eta segurua bermatzeko. Bigarrenik kirol material espezifikoan inbertsio handia egin behar dugu saskibaloia saski egokituak baloi bereziak eta batez ere gurpildun aulki kirolariak erostea edo mantentzea oso garestia delako baina ezinbestekoa jokalariei guztiek parte hartu ahal izateko. Hirugarrenik instalazioen alokairua dago gure jarduerak aurrera eramateko irisgarritasun neurri guztiak betetzen dituzten kantxa eta zelaiak behar ditugulako eta horrek hilerok ordaindu beharreko kuota finkoa dakar. Laugarrenik aseguruak eta legalizazio gastuak ditugu gure jokalarien segurtasuna babesteko erantzukizun zibileko aseguruak eta kirol aseguru espezifikoak kontratatu behar ditugulako edozein ezustekoren aurrean babestuta egoteko. Azkenik garraio eta komunikazio gastuak gehitu behar ditugu material astuna leku batetik bestera mugitzeko ibilgailu egoki bat behar dugulako eta gure proiektua ezagutzera emateko marketin eta kudeaketa tresnak finantzatu behar ditugulako